



68 Zka. EKAINA 2017 JUNIO Nº 68

Kide agurgarriak

Aurten ere, urtero ohi den bezala, martxoan Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko kideok gure Ohiko Batzar Nagusia egin dugu. Oraingo honetan Gipuzkoan egokitu zitzaigun eta bertaratu nahi izan zuten elkargokide egon ginen.

Gobernu Batzordeak 2016ko Memoria eta Balantzea aurkeztu zuen, baita 2017ko Programa eta Aurrekontua. Egin nahi ditugun jarduerak: tailerrak, elkargokideen arteko bilerak, eta beste batzuk azaldu ziren. Proposamenak argitu eta ekarpenak ere egin ziren.

Elkargoaren egoitzaren aldaketa berretzi zen eta Batzar Nagusiaren onespena eskatu zen; egoitza berrian tailerrak eta prestakuntza ekintzak egiteko egoki dugu. Bileran egon ginerako elkartzeko aukera paregabea izan zen.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



Maiatzaren 13 eta 14an Barztelonaan Gizarte Hezitzaileen Kontseilu Nagusiaren azken Batzorde Nagusia burutu zen. Berandu iritsi baginen ere, GHEE-CEESPVek estatu mailan lanbidea elkarlanean eraikitzen egon ginen.

Batzarreko gai zerrendaren puntu nagusiak honako hauek izan ziren: 2016ko memoria eta 2017ko lan egitasmoa, 2016ko Balantzea eta 2017ko aurrekontua, diruzaintza kudeatzeko eskuliburua, Sevillan egindako VII. Kongresuaren ebaluazio txostena, eta azkenez Gizarte Hekuntza legearen kanpainaren jarraipena eta urte honetarako estrategia.

Batzar Nagusiak, lanbidea arautuko duen legea, sortzeko eskariaren estrategia berretsi zuen. Atxikimenduak jasotzeko lan handia egin da eta horrela jarraitu beharko dugu, erakundeen sostenguz, gizarte hezkuntza pertsona guztiei iristeko. Elkargoen Kontseilu Nagusiak bere egitasmoan lanbidea arautzeko estrategia sendotzeko espetxe, hezkuntza eta sozial arloetan ekimen plana bultzatuko du.

Bilkuran Iñaki Rodriguez gure Elkargokidea, **Ohore Aholkulari**, besteak beste, izendatu zuten.

GHEE-CESPVREN BERRIAK

04/10, 02/05, 22/05 y 19/06/2017 Elkargoko Zerbitzu eta Prestazioen Zorroaren Elkargoko Batzordea (Dekretu bereko izenekoari buruzko garapena jarraitzeko) lan bileretan dokumentu bat egin dute eta Elkargoko Batzordeari eta Unibertsitateari onartzeko aurkeztu dute. Batzordea Elkargoko kideez gain HFAF ko UPV-EHUko irakasleez ere osatuta dago.

22/04, 23/05 y 13/06/2017 Elkargoko Deontologia Batzordeak lan bilerak egin zituen. Maiatzan eta ekainean Gasteizen gizarte hezitzaile talde batekin deontologiari buruzko bi ikastaro/tailler, guztira, egin zituzten.

26/04/2017 Irakasleen U.E.n ekitaldia. Batzordeko kide batek G.H.ko graduako lehen mailako ikasleei "Lanbidearen garapena eta Gizarte Hezitzaileen lanbide elkagoak" izenburuko mintzaldia eskaini zuen. Ikasleak Elkargoarekin hastapeneko harremana izateko asmoz egin genuen.

CGCEESko Ohore Aholkulari izendatzeko epaimahia. Elkargokide batek CGCEESek egindako eskaera izendatua bitartez, beste 4 pertsonekin batera, epaimahia osatu zuen. Lana otsaila eta apirilaren bitartean egin zuten.

24/05/2017 Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea Elkagokide batek gonbidatu gisa ekitaldian parte hartu zuen. Oraingoan ordezkariarik ez dugun arren alor honetan Gobernuaren proposamenak eta beste erakundeen iritzia ezagutzeko interesatzen zaizkigu, baita, behar izanez gero, gure aburuak azaltzeko.

30/05/2017 GZEKko Haur eta nerabeen batzorde iraunkor sektorialeko bileran Elkagokide batek parte hartu zuen.

14/06/2017 Adikzioen Euskal Batzordea. Adikzio eta drogomendekotasunaren gaineko arreta integralaren 1/2016ko legearen ondorioz antzinako batzordea deusestaturik oraingoko batzordeko lehen bileran elkagokide batek parte hartu zuen. Batzorde honek aurreko Drogomenpekotasun Aholku Batzordea ordezkatzeko du.

Gipuzkoako Delegaritzak Gipuzkako udal mailan gizarte hezkuntza esku-hartze zerbitzuek daramaten programa zehatzaren arabera eskema eguneratua egin du.

16/06/2017 Vitoria-Gasteizko Udalako Gizarte Politika eta Osasun Publikoko zinegotziarekin elkarrizketa. Elkargoak Tokiko Administrazioa eta Eusko Jaurlaritzako arduradun politiko eta teknikoekin egingo dituen bileren lehenengoa izan da. Gizarte heziketa profesionalen profila zein den jakinarazi nahi diegu.

21/06/2017 Bilboko Udalako Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseiluko Haur eta Familia Batzordea. Elkargoko kide batek bileran parte hartu zuen.

23/06/2017 Bilboko Udalako Gizarte Ekintzako Zinegotziarekin elkarrizketa. Arduradun politiko eta teknikoekin Elkargoak egingo dituen kontaktuetan kokatutako ekintza; Elkargoko bi lagun bertaratu ziren.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

GIZARTE HEZKUNTZA ETA ESKOLA

Urriaren 2an ospatzen dute Gizarte Hezitzaileek euren lanbidearen mundu eguna. Nazioarte mailan urtero ospatzen den onomastika da, eta gure kolektiboa ikusgarri jartzea da asmo nagusia.

Badira urte batzuk erkidego bakoitzeko elkargoak estatu mailan biltzen dituen organoa den Gizarte Hezkuntzako Elkargoetako Kontseilu Nagusiak Gizarte Hezkuntza ezagutzera emateko ekintzak sustatzen dituela.

Aurten, 2017an, **GHEE-CEESPV** (Euskal Herriko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa), Gizarte Hezkuntzako Bloga den **EducaBlog**eko (www.educablog.es) lankideekin lankidetzan, aukera bat egin du: Gizarte Hezkuntzaren Mundu Eguna ospatzean, lanbide honen eta Eskolaren edo Hezkuntza Arautuaren arteko harremana oinarri hartzea.

Hizpide izaten dira ikastetxeetan sortzen diren gizarte arazoak, eta horietako gehienek ez dute baliabiderik hezkuntzari bere zentzu holistikoa (ezagupenak + banakoaren eta taldearen gizarte zatia) heltzeko. Gizarte hezitzaileok gara lan hori burutzeko profesional egokienak; izan ere, gure lan arloak, gizarte eta hezkuntza esku-hartzeak, ahalmena ematen baitugu gizabanakoa murgilduta dagoeneko eta bere komunitatea eratzen duteneko sistemak kontuan hartuta haren garapena ahalik eta onena izan dadin lortzeko. Hori guztia kontuan hartuta, topaketarako eta hausnarketarako une bat aurkitu beharrean gaude.

Egun honetan, beraz, aurrean aipatutako elkarrizketa eta hausnarketarako bide ematea izango da helburua, eta gaia honako hau: Zein da gizarte hezitzaileek ikastetxeetan duten presentzia, irudi profesional honek esparru horretan sartzeko beharra, etab. Horretarako, antolakuntzak (GHEE + Unibertsitatea + EducaBlog) egoki baino egokiago ikusi du Barakaldoko Udalaren laguntza izatea, Bizkaiko herri honetan gai honi buruzko jardunaldi bat izan dezagun.

Horrela, datorren urriaren 2an izango den jardunaldi horretara, erakundeetako ordezkariak, akademikoak eta profesionalak bertaratuko dira eta Estatuan eta, noski, gure Autonomi Erkidegoan binomio honekin (Gizarte Hezkuntza -Eskola) lotutako esperientzia edota jardunbide onen etsenpluak jarriko dira ikusgai.

Amaitzeko, bertaratu eta parte-hartzera gonbidatzea besterik ez zaigu geratzen, izen ere, **LANBIDEA GUZTION ARTEAN ERAIKITZEN BAITUGU.**

DOKTOREGO-TESIAK

Atal honen bitartez, gizarte hezitzaileek gizarte hezkuntzaren arloan burutu dituzten ikerketa-lanen berri ematen dugu.

Gizarte hezkuntzarekin lotutako doktorego-tesiak aurkeztu dituztenek euren lanen laburpena bidal diezagukete (gehenez 400 hitz) gure Elkargoaren medioetan argitaratzeko, atal honetan erakusten den lehenengo tesiak duen formatua erabiliz.

Oraindik defendatu ez bada, irakurketa noiz eta non egingo den esan eta, ondoren, lana argitaratuko genuke.



DOKTOREGO-TESIAREN EGILEA: M^a ARANZAZU REMIRO BARANDIARAN

DOKTOREGO-TESIAREN ZUZENARIAK: M^a TERESA ARANDIA LOROÑO ETA M^a JOSE ALONSO OLEA

DOKTOREGO-TESIAREN IZEN BURUA: "MODELOS DE ACCIÓN SOCIOEDUCATIVA CON INFANCIA Y ADOLESCENCIA EN LOS SERVICIOS SOCIALES MUNICIPALES DE LA CAV"

DOCTOREGOA: PSIKODIDAKTIKAN DOKOTOREGOA

UNIBERTSITATEA: UPV-EHU. LEIOAKO CAMPUSA

DEFENTSA DATA: 2016.07.18

DOKTOREGO TESIAREN LABURPENA

Tesiaren abiapuntu hipotesia honela definitzen da: Gizarte hezitzaileen lanbide kolektiboak badu ahalmena gizarte eta hezkuntza ekintzarako eredu alternatibo bat eraikitzeko.


Tesi honek hiru helburu ditu:

- 1.- Profesionalen eguneroko gizarte- eta hezkuntza-ekintza aztertzea.
- 2.- Gaur egun Euskal Herrian dauden gizarte- eta hezkuntza-ekintza ereduak identifikatzea.
- 3.- Babesik gabeko egoeran dauden haurrekiko gizarte- eta hezkuntza-ekintzari buruzko gomendioak egitea.

Marko teorikoaren azterketa eginda, aztertutako ereduaren sailkapena proposatu da, parte-hartzaileak diren ala ez kontuan hartuta. Metodologia komunikatzailea erabiliz, aurretiko bi ikerketetan lortutako emaitzak analizatu dira, Aholku Batzordearekin erkatuta.

Lortutako emaitzei eta aurkeztutako ondorioei dagokienez, esan dezakegu oso lanbide gaztea dugula, ekintzan oinarritutakoa eta iturri teoriko nahasiak eta dibertsoak dituena. Gizarte- eta hezkuntza-ekintza ereduaren tentsioak aipatzen dira, eta premiazkoa da erakunde publikoek inposatzen duten lan ereduaren eta gizarte hezitzaileen euskarri izan behar duen ereduaren arteko talka gainditu beharra. Profesional hauek gizartearen eraldaketan eragina izango duen eredu baten aldeko apustua egiten dute, eta komunitatearen parte-hartzean oinarrituko dira horretarako; elkarrizketa eta parte-hartzea oinarri dituen eredu baterantz egiten dute aurrera, nahiz eta une honetan asmo hori lortzeko ahalegin profesional handiagoa behar izan, horretarako alde batera utzi behar baitira herritar guztientzako homogeneizagarriak diren kontrol ekintzak.

INTERESGARRIKOAK



Guía didáctica para la educación sexual en centros de menores Gobierno Principado de Asturias



Educación Sexual y discapacidad. Talleres de Educación Sexual y Discapacidad. Material Didáctico. Gobierno Principado de Asturias

Fernández-Simo, D., Cid, X.M., Las actividades deportivas en la estrategia socioeducativa con juventud en dificultad social.



Educación Social, n. 65, 2017, p. 141-155.

En 2013 y 2014, un grupo de profesionales de la educación social rompen las barreras del sistema de atención a la infancia y a la adolescencia y apuestan por una estrategia apoyada en el deporte como medio de interés educativo. Organizan acciones deportivas con juventud con expediente en el sistema.



SIIS Tendencias y buenas prácticas en la atención a la infancia en situación de riesgo social Zerbitzuan, 89-102

Panorama de las principales líneas de actuación y de objetivos de las políticas de refuerzo de la infancia a través de la recopilación de buenas prácticas.

Catherine Grandjean La pervasión de la gestión. Una aproximación crítica de la gestión calidad en las instituciones sanitarias, sociales y médico-sociales.



NOTAS DE VIAJE SOBRE PRÁCTICAS NO PRATRIARCALES

Procesos de cambio organizacional pro equidad de género.

La reforma puede renovar el consenso sobre la RGI frente a quienes desprecian el sistema

Joseba Zalakain. Director SIIS. Diario Vasco 08/06/2017. Iritzia egi-leari dagokio. Elkar-goak gai garrantzitsu honetaz eztabaida pizteko asmoz ekartzen du.



URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.